

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Busturiko Udala**

**Jendaurreko informaziorako iragarkia, Busturia eta Murueta arteko udal-mugarteak, Etxetxubarrri eta Ganpe edo Motorduene artean, aldatzeko espedientearen gainekoa.**

2018ko ekainaren 27ko batzarrean, Busturiko Udaleko osoko bilkurak onartu zuen Busturia eta Murueta arteko udal-mugarteak aldatzeko ekimena gauzatzeko onespen-akordioa. Gehiengo osoak egin zuen akordioa, 6/2015 Foru Arauaren 36. artikulua, Bizkaiko Lurralde Mugapenen abenduaren 5eko 9/2012 Foru Araua moldatzen duenak, eskatu bezala, xedea izanik bi udalerrien arteko mugak aldatzea, Etxetxubarrri eta Ganpe edo Motorduene artean, 7. mugarritik 15.era.

Espedientearen jatorria bi Udalen arteko akordioan datza. Hura gauzatzeko, Batzorde Misto bat osatu da, zeinak aldatzeari buruzko espediente bat egin duen. Horretarako, foru araudiak eskatutako dokumentu eta plano guztiak jaso ditu.

Hori guztia jende orok jakin dezan ematen da argitara, interesdunek aztertu eta nahi beste ekarpen egin dezaten hila beteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Ondorio horietarako, espedientea eskuragarri egongo da Busturiko Udaletxeko bulegoetan, aipatutako epean.

Busturian, 2018ko irailaren 17an.—Alkatea, Aitor Aretxaga Telletxea